



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria *El Lehendakari del Gobierno Vasco*

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 3an

Roberto Seijo jaunari

ErNE

Tomas Rodriguez jaunari

ELA-Ertzaintza



2016 05 03

SARRERIA URRERA
396

Zor zaizuen begiruneaz:

Hainbat gaitan Segurtasun Sailaren eta Er.N.E. eta ELA-Ertzaintza erakunde sindikalen artean dagoen adostasun eza aztertu aurretik –2016ko apirilaren 14an egindako idazkian aipatzen dituzue desadostasun horiek–, eta idazkia irakurri dudala adierazteaz gain, argi utzi nahi dut ni buru nauen Gobernuak onartzen eta aintzat hartzen duela sindikatuen egitekoa enplegatu publikoen ordezkari gisa eta beharreko eragile gisa hartzen dituela ertzainen lan baldintzak negoziatzerakoan.

Gobernu honen kargu politiko guztiak kontzienteak eta kontsekuenteak dira aintzat hartzerakoan zuek ordezkatzen dituzuen erakunde sindikalei ordenamendu juridikoak agindu garrantzitsu bat ematen diela.

Jakin badakit Estefanía Beltrán de Heredia Segurtasun sailburua eta bere ekipoa, bereziki, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza, beti egon dela, dagoela eta egongo dela erakunde sindikalekin eztabaidatzeko eta negoziatzeko prest Negoziazio Mahaian (103. Mahaia) aurkezten diren gai guzti-guztiak.

Estefanía Beltrán de Heredia Segurtasun sailburuak Jaurlaritzaren Kontseilu osoarekin bai nirekin etengabeko komunikazio zehatza duenez eta Negoziazio Mahaia (103 Mahaia) eragiten duen ordezkariaritzan sindikala askotarikoa denez ulertuko duzuelakoan nago–, zuen idatziari erantzun nahi diot orain arte aipatutako inguruabar guztiak kontuan hartuta.

Jarraian, zuen idazkian aipatu dituzuen gaiak nire iritzian zein egoeratan dauden aztertuko ditut.

Horizonte 2016 Ertzaintza Plana.

Horizonte 2016 Ertzaintza Plana hausnarketa estrategiko baten ondorioa da, eta helburu bakar gisa du euskal gizarteari eskaintzen zaion poliziaren zerbitzu publikoa hobetzea, beti ere, Ertzaintzak jarduten duen hainbat eremutan.

Plana egiteko oinarri gisa hartu da Ertzaintza sortu zenetik hogei urtetik gorako esperientzian oinarritutako lana eta ertzain ugarien ekarpenak kontuan izan dira horretako osatu diren hainbat lan talderen bitartez.

Edozelan ere, Sailak 2013ko lehenengo hiruhilekoan aurkeztu zien plan hori sindikatuei eta inork ez zuen inolako desadostasunik aipatu.

2015eko apirilaren 29an, erakunde sindikalek egindako eskaerari erantzunez, Ertzaintzaren Kontseiluko gai-zerrendan sartu zen Horizonte 2016 Planaren ezarpenaren egoera. Sindikatuek bilera horretara ez joatea erabaki zuten.

Edozelan ere, Segurtasun Saila prest dago sindikatuekin ertzainen lan baldintzez eztabaidatzeko eta negoziatzeko. Zalantzak gabe, errazagoa izango da negoziazioek hitzarmenak ekartzea sindikatuen jarrera ez bada aldentzen aurreko legegintzaldiek, egoera ekonomikoak eta euskal administrazio osoaren aurrekontuaren testuinguruak eragindako errealitatetik.



.../...

Ertzaintzaren egutegi guztien negoziazioa.

Ertzaintzako langileei aplikatuko zaizkien ordutegi erregimen guztiak 103 Mahaian negoziatu dira. Hala ere, paradoxa gertatzen da: iazko urtearen bukaeran, gai hori aztertzeko Negoziazio Mahaia deitura egon ondoren, bost sindikatuk Sailari eskatu zioten gai hori zerrendatik kentzeko, eta gero ez ziren aipatutako bilerara joan.

Zaintza eta Erreskate Unitateak badu negoziatutako ordutegi berri bat joan zen urtarriletik, baina ez adostutakoa, alde sindikalarekin. Ordutegi berri hori Brigada Mugikorrari Laguntzeko Unitateak, sortu zenetik, egiten duenaren oso antzekoa da eta Segurtasuna Indartzeak bere garaian garatu zuenaren antzekoa.

Hau da, Segurtasun Sailak baliabide operatiboen hainbat unitatetan zerbitzurako egokia dela uste duen ordutegi hori ez da legegintzaldi honetako berritasun bat.

Zaintza eta Erreskate Unitatearen operatiboak erabateko normaltasunez garatzen ari dira eta gizarteari eskaintzen dioten zerbitzuak orokorrean onartuak daude.

Aldaketak ikerketa alorrean.

Ikerketa alorrean aldaketa batzuk sartu dira eta horien helburua da Ertzaintzak euskal gizarteari eskaintzen dion zerbitzua hobetzea.

Delituen ikerketa da 1.200 ertzain baino gehiagoren lan-esparrua. Polizia-etxe bakoitzean (herri mailan) ikertzaileak daude, lurralte mailan baita ere, eta espezializatuenak Ertzaintzaren Unitate Zentraletan.

Legegintzaldi honen bigarren urtean, Segurtasun Sailak funtsezko aldaketa jasan izan du ikerketa mailan. 2014ko urtarrila baino lehen, ikerketa lanean aritzen ziren ertzainen %80 polizia-etxeetan salaketak jasotzen eta atestatuak izapidezten ibiltzen ziren eta %20k bakarrik ikertzen zituzten delituak eta argitzen zituzten kasuak.

Segurtasun Sailak bultzatu du, 2014an zehar, erabateko aldaketa ikerketa arloan eta gaur egun ikerketan espezializatuak diren %50 ikerketan eta kasuak argitze lanetan ari dira eta beste %50, lan administratiboagoan, herritarrei arreta ematen eta dokumentazio izapidezten ari dira.

Edozelan ere, zuen eskutitzean diozuen moduan, Segurtasun Sailak ikerketan lana egiten duten ertzainak kendu ditu hainbat guardia egitetik eta egin beharreko egokitzapenak egingo ditu lanerako dauden kideak lan kargara egokitzeko.

Joan den astean bukatu zuten ikerketa espezialistaren prestakuntza jasotzen ari ziren 55 ertzain berrik, eta horiek arinduko dute, neurri handi batean, orain Gipuzkoako ertzain etxe batzuetan dagoen gabezia.

Operatibo bereziak

Badakit zuek ordezkatzen dituzuen sindikatuek baten baino gehiagotan komunikabideetan kritikatu dituztela hiritarren segurtasun alorrean edo Brigada Mugikorraren arloan Ertzaintzaren agintariekin diseinatu eta gauzatutako polizia operatiboak.

Hemen nire esker ona adierazi nahi diet ertzain guztiei egindako lanagatik, edozein izanda ere bere kategoria profesionala eta erantzukizun maila, egoera zailetan bereziki. Jakin badakit zein zailak diren "taldeak kontrolatzeko" operatiboak, zaila baita horrelakoetan hirugarrenei egin ahal zaion kaltea ekiditea eta, aldi berean, proportzionaltasunez esku hartzea istilu sortzaileen aurrean.

.../...



.../...

Jakin badakit, baita ere, jakinarazi zaizuela operatibo horietan erabili diren giza baliabide eta baliabide materialak beti izan direla polizialki egokientzat jotakoak. Segurtasun Saileko arduradun bakar batek ere ez du inoiz aurrezte ekonomikorako irizpiderik erabili operatibo horien diseinuan.

Lan baldintzen negoziazioa

Zuen idatziaren bukaeran diozue Ertzaintzan dagoen adostasun ezaren azken eragileak "izenpetutako akordioetako murrizketak" direla eta hori kontrajartzen duzue beste administrazio batuetan eman diren lan baldintzen errekuperazioarekin.

Lehenik eta behin, zuen idatzian aipatzen dituzuen "murrizketak" ez dira ni buru naizen gobernuak egindakoak. Erabaki horiek aurreko legegintza autonomiko bateko gobernuarenak dira. Eta oraingo legegintzaldi honen lehenengo egunean esan banuen "ez nuela atzera begiratuko" kritiketan ez nahasteko, horrek ez du esan nahi errealtitatea ez dela daukaguna, eta nik ez dudala ezagutzen edo ez dudala erreferentziatzat hartzen.

Bigarrenik, Segurtasun Sailak legegintzaldi honetan ez du erakunde sindikalekin aurretik izenpetutako akordiorik bete gabe utzi, Estatuko oinarrizko legeriak horretara behartu duenean salbu.

Eta, hirugarrenik, duela gutxi, Estatuko oinarrizko legeriak horretarako aukera eman duenean, enplegatu publikoek (ertzainak barne) berreskuratu dituzte norberaren eginkizunetarako egun libreak eta antzinatasunagatik emandako baimen egunak. Era berean, egutegi bat ezarri da 2012an kendu zen aparteko ordain-saria berreskuratzeko (indarrean dagoen legegintzaldiko gobernuak hartutako erantzukizunaren aurretik) eta %1 igo dira langile publiko guztien ordainsariak, 2016ko ekitaldirako Aurrekontuen legeak esaten duena betez.

Egia da, azken urteetan krisi ekonomiko larriak eta diru-sarrera publikoen gutxitze korrelatibo batek eraginda, sakrifizioak eskatu zaizkiela enplegatu publiko guztiei eta publikoki eskertu zaiela eskatutako sakrifizio horiei emandako erantzuna. Baino egia da, baita ere, egoera ekonomikoak horretarako aukera ematen duen neurrian, Eusko Jaurlaritzak asmoa duela enplegatu publikoen lan baldintzak hobetzeko apurka, baita ertzainenak ere.

Zure idatziari emandako erantzuna bukatzeko, nabarmendu nahi dut bai Segurtasun Saila bai Saileko arduradun nagusi Estefanía Beltrán de Heredia sailburua prest daudela ertzainen legezko ordezkariekin eztabaidatzeko eta negoziatzeko horretarako ezarri diren foroetan –Negoziazio mahaian (103 mahaia) eta Ertzaintzaren Kontseiluan, hain zuzen– neurea eta Jaurlaritzaren Kontseiluarena egin baititut, lehenengo egunetik, zuek aipatzen duzuen adostasuna bilatzeko irrika.

Adeitasunez,

Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakaria



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 3 de mayo de 2016



A

D. Roberto Seijo,
Secretario General ErNE
D. Tomás Rodríguez,
Responsable ELA-Ertzaintza

Con mis respetos:

Antes de analizar los puntos de desencuentro entre el Departamento de Seguridad y las organizaciones sindicales Er.N.E. y ELA-Ertzaintza a los que se refieren en su escrito de 14 de abril de 2016, además de reflejar mi lectura del mismo, quiero dejar claro que el Gobierno, del que me honro presidir, reconoce y valora la función de los sindicatos como representantes de los empleados públicos y como agentes necesarios en la negociación de las condiciones laborales de los y las ertzainas.

Todos los cargos políticos de este Gobierno son conscientes y consecuentes en la consideración de la importante encomienda que el ordenamiento jurídico otorga a las organizaciones sindicales que ustedes representan.

Me consta que la Consejera de Seguridad, Estefanía Beltrán de Heredia, y su equipo, singularmente la Viceconsejería de Administración y Servicios, siempre ha estado, está y estará dispuesta a debatir y negociar con las organizaciones sindicales todos y cada uno de los temas o cuestiones que se planteen en la Mesa de Negociación (Mesa 103).

Es por ello que, siendo permanente la comunicación e información por parte de la Consejera de Seguridad, Estefanía Beltrán de Heredia, tanto al conjunto del Consejo de Gobierno como a mí mismo con absoluta puntualidad, como siendo que, Uds. así lo comprenderán, es diversa la representación sindical afectada por la citada Mesa de Negociación (Mesa 103), atiendo su escrito respondiendo al mismo según todas las circunstancias reseñadas hasta ahora.

A continuación, analizaré la situación en que interpreto que se encuentran los temas a que han hecho alusión en su escrito.

Plan Ertzaintza Horizonte 2016.

El Plan Ertzaintza Horizonte 2016 es producto de una reflexión estratégica, que tiene como único objetivo la mejora del servicio público policial que se ofrece a la sociedad vasca y ello desde los distintos ámbitos en que la Ertzaintza despliega su actividad.

Para su elaboración se ha tomado como base la experiencia acumulada por el trabajo realizado por los y las ertzainak después de más de veinte años desde su creación y se ha contando con las aportaciones de un número elevado de ertzainak por medio de los diferentes grupos de trabajo que han sido conformados para ello.

En cualquier caso, el Departamento hizo una presentación de este Plan a los sindicatos en el primer semestre de 2013 y ninguno de ellos manifestó su desacuerdo.

El pasado 29 de abril de 2015, atendiendo a la petición de las organizaciones sindicales, se incluyó como punto del Orden del día del Consejo de la Ertzaintza, la situación de la implantación del Plan Horizonte 2016. Los sindicatos decidieron no asistir a esa reunión.



.../...

En cualquier caso, el Departamento de Seguridad sigue abierto a debatir y negociar con los sindicatos sobre las condiciones laborales de los y las ertzainak. Obviamente, será más fácil que las negociaciones culminen en acuerdos si la posición sindical no hace abstracción de la realidad derivada de anteriores legislaturas así como de la situación económica y el contexto presupuestario del conjunto de la Administración vasca.

Negociación de la totalidad de los calendarios de la Ertzaintza.

La totalidad de los regímenes horarios de aplicación al personal de la Ertzaintza ha sido negociada en la Mesa 103. Sin embargo, se da la paradoja de que, a finales del año pasado, estando convocada una reunión de la Mesa de Negociación en que se contenía este punto en el orden del día, cinco sindicatos solicitaron al Departamento la retirada del mismo, no habiendo acudido después a la mencionada reunión.

La Unidad de Vigilancia y Rescate dispone desde el pasado mes de enero de un nuevo horario negociado, aunque no acordado, con la parte sindical. Este nuevo horario es similar al que, desde su creación, realiza la Unidad de Apoyo a Brigada Móvil e idéntico al que, en su día, desarrolló la Brigada de Refuerzo.

Es decir, ese horario, que el Departamento de Seguridad considera adecuado para el servicio en determinadas unidades de recursos operativas, no es una novedad de la presente legislatura.

Los operativos de la Unidad de Vigilancia y Rescate se están desarrollando con absoluta normalidad y el servicio ofrecido a la sociedad tiene un reconocimiento generalizado.

Modificaciones en el área de Investigación.

En el Área de Investigación se han introducido una serie de cambios cuya finalidad es la mejora del servicio que la Ertzaintza ofrece a la sociedad vasca.

La investigación de los delitos es el área de trabajo de más de 1.200 ertzainak. Hay investigadoras-es en cada comisaría (nivel local), en el nivel territorial y las-los más especializados en las Unidades Centrales de la Ertzaintza.

En el segundo año de la legislatura presente, el Departamento de Seguridad ha afrontado un cambio sustancial en el área de Investigación. Antes de enero de 2014, el 80% de los ertzainak que trabajaban en investigación se ocupaban, dentro de las comisarías, de la recogida de denuncias y la tramitación de los atestados y sólo el 20% investigaba los delitos y resolvía los casos.

El Departamento de Seguridad ha impulsado, a lo largo de 2014, un cambio radical en el área de Investigación y, a fecha de hoy, casi el 50% de las-los especialistas en investigación se dedica a investigar y resolver casos mientras el otro 50% atiende la labor, más administrativa, de atención al ciudadano-a y tramitación de documentos.

En cualquier caso, el Departamento de Seguridad, como ustedes mismos reconocen en su escrito, ha liberado a las-los ertzainak que trabajan en investigación de guardia de determinadas tareas y realizará los ajustes que sean necesarios para adecuar los efectivos a las cargas de trabajo.

La semana pasada finalizaron su formación como especialistas en investigación 55 nuevos ertzainak que paliarán, en una importante medida, la actual carencia en algunas Comisarías de Gipuzkoa.

Operativos especiales

Me consta que, en reiteradas ocasiones, los sindicatos que ustedes representan han criticado, en los medios de comunicación, los operativos policiales diseñados y ejecutados por los mandos de la Ertzaintza del área de seguridad ciudadana o de Brigada Móvil.

.../...



.../...

Quiero expresar aquí mi reconocimiento al trabajo de todas-todos los ertzainak, cualquiera que sea su categoría profesional y nivel de responsabilidad, en situaciones especialmente complejas. Sé lo complicado que resultan los operativos de "control de masas" por el difícil equilibrio que supone evitar daños a terceros y, a la vez, intervenir con proporcionalidad frente a las-los alborotadores.

También me consta que se les ha trasladado a ustedes que el despliegue de medios humanos y materiales que se ha realizado en estos operativos ha sido siempre el que policialmente se ha considerado más conveniente. Ningún responsable del Departamento de Seguridad ha introducido nunca criterios de ahorro económico en el diseño de estos operativos.

Negociación de las condiciones laborales

Al final de su escrito, señalan como causa última del desencuentro en la Ertzaintza los "recortes en los acuerdos suscritos" y lo contraponen a la recuperación de condiciones laborales que se ha dado en otras administraciones.

En primer lugar, ninguno de los "recortes" a los que hacen referencia en su escrito han sido adoptados por el Gobierno que dirijo. Se trata de decisiones de un ejecutivo responsable de una legislatura autonómica anterior a esta. Y el hecho de que, desde el primer día de la legislatura presente, yo hubiera dicho que no "miraría hacia atrás" para enredarme en críticas no significa que la realidad sea la que es y que la desconozca o no la tenga como referencia.

En segundo lugar, el Departamento de Seguridad, en la presente legislatura, no ha incumplido acuerdo previo alguno suscrito con las organizaciones sindicales, salvo cuando ha sido obligado a ello por la legislación básica del Estado.

Y, en tercer lugar, en fechas recientes, cuando la legislación básica estatal lo ha permitido, los empleados públicos (también las-los ertzainak) han recuperado los días libres por asuntos propios y los días de permiso por antigüedad. Igualmente se ha establecido un calendario para la recuperación de la paga extra detraída en el año 2012 (antes de la responsabilidad asumida por el ejecutivo al inicio de la legislatura vigente) y se han incrementado en un 1% las retribuciones a todas-todos los empleados públicos, según lo señalado en la Ley de Presupuestos para el ejercicio 2016.

Es cierto que, en los últimos años, en el contexto de una grave crisis económica y disminución correlativa de los ingresos públicos, se han pedido sacrificios a todas-todos los empleados públicos, habiendo también agradecido públicamente la respuesta a dichos sacrificios. Pero también es cierto que, en la medida que la situación económica lo haga posible, el Gobierno Vasco tiene la voluntad ir mejorando las condiciones laborales de las-los empleados públicos, incluidos los y las ertzainak.

Para finalizar mi contestación a su misiva, quiero insistir en la absoluta disposición del Departamento de Seguridad y su máxima representante, la Sailburu Estefanía Beltrán de Heredia, para el debate y la negociación con los legítimos representantes de los y las ertzainak en los distintos foros establecidos para ello: la Mesa de Negociación (Mesa 103) y el Consejo de la Ertzaintza, habiendo hecho mía y del Consejo de Gobierno, desde el primer día, la actitud de la búsqueda y empeño por el encuentro deseado al que Uds. se refieren.

Atentamente,

**Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakari**